

**KONTSULTA PUBLIKOAREN TRAMITEAREN OMISIOA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA, FORU AGINDU BAT ALDATZEKO FORU AGINDUAREN PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURAN. ALDATU DEN FORU AGINDUA: 71/2012 FORU AGINDUA, IRAILAREN 18KOA, OSASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, FARMAZIA-BULEGOEN MARJINEN INDIZE ZUZENTZAILEA APLIKATZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.**

2022ko azaroaren 30ean argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean azaroaren 29ko 997/2022 Errege Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 16ko 823/2008 Errege Dekretua. Errege dekretu horren bidez ezarri ziren gizakiendako sendagaien banaketa eta salmentarako marjinak, kenkariak eta deskontuak.

Errege dekretu horrek aldatu du maiatzaren 16ko 823/2008 Errege Dekretuaren 8. artikulua, zeina oinarrizko araua baita Espainiako Konstituzioaren 149.1.16. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala, eguneratu dira farmazia-bulegoen marjinen indize zuzentzailearen kenkarien eta baldintzen eskalak, industrialki fabrikatutako eta funts publikoen kargura emandako gizakiendako sendagaien errezetei edo salmenta-aginduei dagozkienak.

Aipatutako xedapena 2023ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Beraz, farmazia-bulegoen fakturazioan egun horretatik aurrera aplikatuko da.

Nafarroari dagokionez, Osasuneko kontseilariaren irailaren 18ko 71/2012 Foru Aginduek farmazia-bulegoen marjinen indize zuzentzailea aplikatzeko prozedura ezarri zuen eta, hartara, 3. artikuluan ezarri zituen aipatutako indize zuzentzaile hori aplikatzeko farmazia-bulegoek bete beharreko baldintzak.

Horrenbestez, beharrezkoa da foru agindu hori aldatzea eta, orobat, baldintzak zuzentzea, 997/2022 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Era berean, beharrezkoa da eskatzeko prozedura berrikustea (aipatutako foru agindu horretako 4. artikuluan araututakoa), administrazio elektronikoa sendotzeko, tramitazioa arintzeko eta administrazio-lanak murrizteko.

Aipatutako alderdiei dagokienez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmaziako zuzendariordeak txostena idatzi du eta hartan ezarri komeni dela aipatutako foru agindua aldatzea, aipatutako aginduei idazketa berria ematea eta, gainera, lehen eta bigarren xedapen gehigarriak indarrrik gabe uztea, indarraldia galdu baitute.

Ildo horretan, aldatzeko foru agindua prestatzeko prozedura zein izanen den ere adierazten da eta, bereziki, kontsulta publikoaren tramitea nolakoa izanen den.

Hartara, adierazi behar da, lehenik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak foru lege mailako arauak eta erregelamenduak prestatzeari buruzko VII. titulua du (128.-133. art.). Titulu

horretan adierazitakoa erregulazioa hobetzeko politikaren barnean sartzen da. Ildo horretan, 133. artikulua berekin dakar aurrerapena parte-hartzearen arloan. Izan ere, aurrerapenetan berriena aurretiko kontsulta publikoa da, nahitaez egin beharrekoa, zeina fase goiztiarrean egiten baita, behar den proiektua egin gabe dagoenean eta araudi-proposamen idatzi gabe dagoenean. Halaxe ematen zaio hasiera arautze-zikloari.

Hala ere, tramite honen irismena erlatibizatu behar da (tramitearen xedea da gobernuak arauak egiteko ahalmena arbitrarioki erabiltzea saihestea eta legezketasuna bermatzea eta arauak ematean asmatzea), kontuan izanik aipatutako aginduak xedatzen baititu salbuespentzat har daitezkeen zenbait kasu. Izan ere, 5. eta 6. apartatuetan zenbait salbuespen biltzen dira, zeinak baztertzeko arrazoitzat har baitaitezke: (i) gaiari buruzkoak eta (ii) egin nahi den arautzearen irismenari buruzkoak.

Bereziki, 6. apartatuan ezarritakoaren arabera, erregelamendu-proiektuetan posible da aldez aurreko kontsultarik ez egitea, horrek jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez badu, hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez badie, arlo baten alderdi partzialak arautzen baditu, edo erregelamendu-ahala arautzen duen araudiak presazko tramitatzea aurreikusten badu.

Aipatutako kasu horietan, adierazi behar da, lehenik, egin nahi den xedapenak ez duela eragin nabarmenik jarduera ekonomikoan, ez baitu lehiakortasuna, enplegua edo aberastasunaren sorrera ukitzen, besteak beste. Hala, aldaketa honek ez du eraginik farmaziak ireki eta antolatzearen araubidean; are gehiago, herritarrei eman beharreko farmazia-arreta hobetzen du. Hain zuzen ere, farmazia-bulegoek ematen duten interes orokorreko osasun-zerbitzuaren izaerak ez badu hutsaltzen haren merkataritza-izaera, ezinbestekoa da eta botere publikoen obligazioa da farmazietara joateko aukera bermatzea lurralde osoan eta, orobat, farmazia-bulegoen bideragarritasuna bilatzen ahalegintzea.

Halaber, ez zaie hartzaileei ageriko betebeharririk ezartzen, aldatzeko foru agindu honek ez baitie kargarik edo betebeharririk ezartzen, ez farmazia-bulegoen titularrei, ez haien erabiltzaileei. Aitzitik, indize zuzentzailearen aplikazioaren onurak izateko gaur arte exijitutako betebeharreri dagokienez, malgutu egin dira eta, aldi berean, haiek aplikatzeko administrazio-prozedura erraztu.

Gainera, aipagai dugun foru aginduak gaiaren alderdi partzialak arautzen ditu, estatuan indarrean dagoen oinarritzko legeria aldatu ondoren, *ad supra* agerian gelditu den bezala, eta gaur egungo egoera juridikoa aldatu gabe.

Aurrekoa kontuan izanik, justifikatuta dago prozedura honetan kontsulta publikoaren tramiterik ez egitea, legezketasuna, herritarren eskubideak eta arauaren asmatzea zalantzan jarri gabe.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

*(Sinatua jatorrizkoan)*

**O-NOZeko Farmazia eta Prestazioen  
Zuzendariorde**